



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 56. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Maiatza



GIPUZKOA



### NABARMENDU BEHARREKOA

> Gipuzkoako bost proiektu berrik EGEFren erkidegoarekin baterako finantziazioa jasoko dute

Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013rako EGEF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordeak maiatzaren 16an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako bost proiektu berri sartzea onetsi zen.

Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak aurretik onetsi zituen bost proiektuok; honako hauek dira:

- Biodonostia: ikerketa-azpiegitura eta ikerketa-proiektuak
- Smart Grid: banaketa elektrikorako mikrosare adimenduna sortzea
- Erlea: uraren zikloa kudeatzeko lanetan hobekuntzak modu esperimentalean garatzea
- Sarecar eta Ibilgailu elektrikoak: ibilgailu elektrikoaren alokairu-sistemak eta erabilera partekatua garatzea

Era berean, 2010. urteari dagokion txostena onetsi zuten bileran; portzentajeei dagokienez, gastu ziurtatua % 56 izan zen, eta egindako gastua, berriz, % 94. Aldi horretarako aurreikusitako guztizko gastua 213,9 milioi euro da.

*Informazio gehiago:*

<http://www.estrategia.net/estrategia/POPV%20FEDER/tabid/636/ItemID/42169/View/Details/Default.aspx>



### > Europar Batasuneko gobernantza ekonomiko berria

Europar Batasunak eta estatu kideek onartutako gobernantza berriak ekonomiaren eta aurrekontuaren koordinazioa indartzen du Batasun osoarentzat eta eurogunearentzat. Krisiari aurre egiteko, gobernantza ekonomiko berriak hiru ekimen nagusi izango ditu oinarri:

- Programa ekonomiko bateratua, Europa 2020 Estrategia, indartzea, erkidegoak gehiago ikuskatuko duelarik
- Eurogunearen egonkortasuna babestea
- Finantza-sektorea berreskuratzea

Estatu kideen arteko gobernantza ekonomikoaren sistema garbi bat ez izatearen ondorioz, desorekak eta aukerak galdu direla uste du Batasunak, eta modu horretan, krisia lehertu zenean, Batasun osoa egoera ahulagoan egotea ekarri zuen.

Eta 2020ko helburuak betetzea azpimarratzen du:

- 20 eta 64 urte bitarteko biztanleen % 75ak enplegua izan behar du.
- EBren BPGaren % 3a ikereta eta garapenean inbertitu behar da.
- EBk CO2 emisioak % 20 murriztu beharko ditu, energiaren eraginkortasuna % 20 handitu beharko du eta energia berriztagarriek energiaren kontsumo orokorrean betetzen duten zatia % 20 arte handitu beharko du.
- Eskola-uzte goiztiarraren proportzioa % 10 baino baxuagoa izan behar da, eta gutxienez gazteen % 40ak titulu edo diplomaren bat izan beharko du.
- Pobreziaren arriskua 20 milioi pertsona baino gutxiagok izatea lortu behar da.

2011tik aurrera, estatu kideek eta Batzordeak aldi berean eztabaidatuko dituzte egiturazko erreformak, hazkundea sustatzeko neurriak eta aurrekontuaren ikuskapena urte bakoitzeko lehen seihilekoan. Horrela, Europar Batasunak erabaki ekonomikoaren eta aurrekontu-mugen arteko koherentzia bermatuko du, modu horretan, eraginkortasuna handitzeko eta maila nazionalean emaitzak hobetzeko.

Halaber, Batzordeak berriazko hainbat gomendio aurkeztu ditu estatu kide bakoitzarentzat.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/europe2020/tools/monitoring/recommendations\\_2011/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/europe2020/tools/monitoring/recommendations_2011/index_en.htm)



### > Batasuna Berrikuntzaren alde 2011: ikerketa eta berrikuntzari bultzada krisitik ateratzeko

Batzordearen txostenaren arabera, Europak ikerketan eta berrikuntzan egindako inbertsioa arindu behar du, izan ere, gure lehiakide nagusiekiko dagoen tarte nabarmen handitzen ari da, enpresen aldetik I+Gan egindako inbertsioa ahulagoa delako.

Ekonomia-krisiaren garaian, ikerketan eta berrikuntzan egindako inbertsioak eragin kontraziklikoa du. Ikerketan eta berrikuntzan inbertsioak handitu dituzten herrialdeek krisitik ateratzeko itzaropen handiagoak dituzte. Eta berrikuntzako inbertsioak espezializazio estrategia adimendun baten araberakoak izan behar dira, politikak eskaintzaren eta eskariaren ikuspuntutik konbinatuta.

Eta kualifikazio handiko langileen trebakuntzak enpresen beharrekin bat etorri behar duela azpimarratzen du. Beraz, irakaskuntza-sistemak egokitu egin behar dira tituludunen kopuruak handitzen jarrai dezan eta enpresen beharrekin modu egokiagoan bat etor daitezzen.

Era berean, txostenak berrikuntza eta ikerketa sistema nazionalen indarguneak eta ahulguneak aztertzen ditu, eta politika nazionaleri begira hautatuko diren aukeren oinarri enpirikoa ematen du.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/research/innovation-union/pdf/competitiveness-report/2011/executive-summaries/es.pdf#view=fit&pagemode=none>

[http://ec.europa.eu/research/innovation-union/index\\_en.cfm?pg=press&section=competitiveness-report&year=2011](http://ec.europa.eu/research/innovation-union/index_en.cfm?pg=press&section=competitiveness-report&year=2011)



### KOMUNITATEKO POLITIKAK

#### > Iruzuraren aurka borrokatzeko araudia

Maiatzaren 26an Batzordeak neurri-multzo bat jasotzen duen txostena onetsi zuen; neurri horiei esker, fiskal eta epaileak iruzurraren aurka eraginkortasun handiagoz borrokatuko dira. Batzordeak benetako zigor-legeria indartzeko asmoa du, ondasunak bidegabe erabiltzea eta botere gehiegikeria bezalako arau-hausteen definizioa argituz. Halaber, Iruzuraren aurkako Borrokarako Europako Bulegoaren (OLAF) eta Eurojust erakundearen (EBko kooperazio judizialeko erakundea) eskumenak indartzeko asmoa du.

Batasunak Europako Fiskaltza espezializatu batek Batasunaren finantza-interesen aurkako iruzurrari eta beste arau-hauste batzuei dagozkien arau komunak nola aplikatu ditzakeen aztertuko du ere.

2009an gertatutako iruzur kasuak 280 milioi eurora iritsi ziren, eta horrek Batasunaren guztizko aurrekontuaren % 0,2 inguru adierazten du.

Zigor-legeria hobetu daitekeen hainbat sektore aipatzen ditu txostenak, Batasunaren finantza-interesak babesteko xedearekin:

- Prozedura zorrotzagoak
- Benetako zigor-legeria indartzea
- Europa mailan erakundearen eskumenak indartzea
- Europako Fiskaltza espezializatu bati buruzko azterketa

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/commission\\_2010-2014/leding/multimedia/news/2011/05/20110526\\_en.htm](http://ec.europa.eu/commission_2010-2014/leding/multimedia/news/2011/05/20110526_en.htm)



### > Emakumeak eta enpresen zuzendaritzak

Europako Parlamentuko Emakumearen Eskubideen eta Genero berdintasunaren Batzordeak maiatzaren 25ean onetsitako txostenak, kuoten inguruko legeria 2012. urtearen aurretik egin dezan eskatzen dio Batzordeari, enpresen kudeaketa-organoetan emakumeen ordezkariak handitzeko, eta 2015ean % 30era eta 2020an % 40era iristeko.

Txostenak gogora ekartzen du Batasuneko burtsan kotizatzen duten sozietate handien zuzendaritzetan emakumeak soilik % 10 direla eta enpresa horien lehendakariak soilik emakumeen % 3ari dagokiola.

Halaber, emakumezko enpresarien eta ETEen inguruko bigarren txosten bat ere onetsi zuen. Horrela, emakumezko enpresariak eskuragarri dituzten finantzatzeko aukerak baliatzea eskatzen zaie estatu kideei, hala nola, diru-laguntza bereziak, arrisku-kapitala, gizarte segurantzako zerbitzuak eta finantziarioa modu bidezkoan eta berdinean eskuratu ahal izateko interes-tasen deskontuak, esaterako, mikrofinantzaketarako tresna europarra.

*Informazio gehiago:*

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//NONSGML+COMPARL+PE-458.776+02+DOC+PDF+V0//ES&language=ES>

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//NONSGML+COMPARL+PE-458.779+01+DOC+PDF+V0//ES&language=ES>





### > Arrantza politika komuna, 2012ari begira

Arrantza Politika Komunak azken urteotan lortutako aurrerakuntzak jasotzen dituen dokumentua landu du Batzordeak, eta 2012. urteari begira Batasuneko uretan arrantzarako aukerei lotutako iradokizunak aurkeztu ditu.

Era berean, Europako uretan arrain-populazioaren egoera hobetzen ari dela adierazten du, nahiz eta oso mantso gertatu. Atlantikoan eta inguruko itsasoetan gehiegizko arrantzaren helburu diren populazioen kopurua murriztu egin da: 2004. urtean, gehiegizko arrantzak 34 populazioetatik 32ri eragiten zien; 2010ean, berriz, zeuden 35 populazioetatik 22ri eragiten zien. Ondorioz, % 94tik % 63ra murriztu da. Mediterraneoan ezagutzen diren populazioen artean, % 82an gehiegizko arrantza egiten da.


Eta Arrantza Politika Komunaren helburuak kontuan hartuta, jasangarritasuna kudeatzeko ikuspuntuari buruzko kontsulta abiatu du; epea uztailaren 20an amaituko da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/fisheries/partners/consultations/fishing\\_opportunities/consultation\\_document\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/fisheries/partners/consultations/fishing_opportunities/consultation_document_es.pdf)

[http://ec.europa.eu/fisheries/documentation/publications/poster\\_tac2011\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/fisheries/documentation/publications/poster_tac2011_es.pdf)

[http://ec.europa.eu/fisheries/partners/consultations/fishing\\_opportunities/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/fisheries/partners/consultations/fishing_opportunities/index_en.htm)



### > Administrazio Elektronikoa 2015

Maiatzaren 27ko Batasuneko Batzordeak Administrazio Elektronikoa 2011-2015 egitasmoari buruzko Europako Ekintza-planaren ondorioak landu zituen. Ekintza-planaren xedea administrazio elektronikoaren zerbitzuak tokiko, eskualdeko eta EBko mailetan txertatu daitezzen sustatzea da. Horrela, jatorrizko herrialdea edozein izanda ere, herritarrek eta EB osoko enpresek sarbide handiagoa eta hobeagoa izango lukete.

Halaber, 2015. urtean herritarren % 50ak eta EBko enpresen % 80ak administrazio elektronikoaren zerbitzuak erabiltzea da helburua.

Horren haritik, ekintza praktikoa zehatzak abiatzea eskatu zaie estatu kideei. Esaterako, EBko herritarrak administrazio elektronikoaren zerbitzuen inguruan sentsibilizatzea eta horiengan konfiantza sortzea, sare sozialen eta parte hartzeko tresnen erabilera sustatzea administrazio publikoen eta herritarren arteko komunikazioa arinagoa izan dadin, administrazio elektronikoaren zerbitzuetan segurtasuna eta intimitatearen babesa hobetzea, eta herritarrek zerbitzu horiengan duten konfiantza areagotzea.

Halaber, politikak lantzeko prozesuetan parte-hartzea handitu dadin, IKTak erabiltzeko gonbitea luzatzen da, eta ahal denean, sektore publikoari buruzko informazioa linean emanez gardentasuna handitzea.

*Informazio gehiago:*

<http://register.consilium.europa.eu/pdf/es/11/st10/st10308.es11.pdf>

<http://register.consilium.europa.eu/pdf/es/10/st18/st18135.es10.pdf>





### > Kirolaren plan europarra

Batasuneko kirol ministroek Europar Batasuneko kirolaren lehen lan-egitasmoa onetsi dute; hain zuzen ere, Lisboako Itunak xedatutako eskumen-esparru berria da.

2011-2014 epeari begira, lan-egitasmoaren helburu nagusia kirolaren alorrean estatu kideen eta EBren arteko lankidetzaren indartzea da. Esku hartzeko hiru lehentasunezko gai jasotzen ditu txostenak: zuzentasuna, gizarte baloreak eta kirolaren alderdi ekonomikoak. Hainbat lantalde sortuko dira, eta besteak beste, dopinaren aurkako lana, kirolaren inguruko hezkuntza eta prestakuntza eta kirol-estatistikak aztertuko dituzte.

Egitasmoa Kirolaren Liburu Zurian zein kirolaren dimentsio europarraren garapenari buruzko komunikazioan oinarritzen da.

*Informazio gehiago:*

<http://register.consilium.europa.eu/pdf/es/11/st09/st09509-re01.es11.pdf>

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0012:FIN:ES:PDF>



### KOHESIO-POLITIKA

#### > Europar Batasunaren kohesioari buruzko bosgarren txostena: kontsulta publikoa

Europar Batasuneko ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesioari buruzko bosgarren txostenaren ondorioen inguruan Europako Batzordeak egindako kontsulta publikoaren prozesuak jada 444 ekarpen jaso ditu. Talde oso desberdinen aldetik jaso dira ekarpenak; besteak beste, estatu kideak, ekonomia eta gizarteko ordezkariak eta eskualdeko eta tokiko agintariak zein herritarrak, lurralde-gaiei buruz interes europarra duten erakundeak, enpresa pribatuak eta gizarte zibileko erakundeak.

Kohesio-politikaren balio erantsia hobetzeari eta gobernantza indartzeari zein kohesio-politikaren aplikazio-sistema arrazionalizatzeari buruzko iritziak azaldu zituzten parte-hartzaileek. Halaber, hurrengo programazio-aldiari begira kohesio-politikaren etorkizuneko arkitekturari buruzko ikuspuntuak adierazi zituzten.


Kontsultarako xede ziren gaien inguruan, oro har, parte-hartzaileek kohesio-politikaren eta Europa 2020 estrategiaren arteko lotura estutzearen aldeko jarrera erakutsi zuten; hala ere, batzuek kohesio-politikaren berariazko helburuak mantendu behar direla azpimarratu zuten.

Era berean, kontsulta-egileek agerian utzi zuten kohesio-politikak ahalik eta malguena izatea bermatu behar zela, eskualdeko eta tokiko testuinguruak kontuan hartze aldera. Horrela, eskualdeko eta tokiko eragileek kohesio-politikaren lehentasun eta helburuetan eragina izatea ahalbidetuko litzateke, goranzko edo «behetik gorako» ikuspuntuari jarraikiz (bottom-up).

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/consultation/5cr/index\\_es.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/consultation/5cr/index_es.cfm)

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/consultation/5cr/pdf/5cr\\_result\\_summary\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/consultation/5cr/pdf/5cr_result_summary_es.pdf)



### > Europako Gizarte Funtsa 2013tik aurrera

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen irizpen batek 2013. urtetik aurrera Europako Gizarte Funtsek izango duen etorkizuna aztertu du.

Kohesio-politikak eskualdeen arteko desberdintasunak murrizteaz gain, biztanle-talde zehatz batzuei eragiten dieten gizarte desberdintasunak murrizten lagundu behar duela dio irizpenak.

Hori gerta dadin, enplegu osoko gizartea, aukera berdintasuna, integrazioa eta kohesio soziala, eta ondorioz, modu zabalagoan, gizarte eredu europarra sustatzea planteatzen da.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2011:132:0008:0014:ES:PDF>



### e-LIBURUTEGIA

#### > Mendekotasuna duten pertsonen arreta epe luzeari begira

ELGAREN txostenak adierazitakoaren arabera, pertsonak zaintzeko gastuak bikoiztu eta hirukoiztu egingo dira hurrengo hamarkadetan, pertsonen bizitza luzeagoa izango delako. Gaur egun, gastu horrek BPGAREN % 1,5 adierazten du; Suedia eta Holanda herrialdeetan, esaterako, % 3,5 da.


Mendearen erdialdean Europar Batasunean zortzi pertsonetatik batek 80 urte baino gehiago izatea aurreikusten da, eta ahultasun egoeran dauden pertsonak modu egokian bizi ahal izateko laguntza beharko dute.

Egoera honen aurrean, estatu kide bakoitzaren egoera ere aztertzen duen ELGAREN txostenak hainbat galdera jasotzen ditu: Zein eragin izango dute gizarte eta lan joerek pertsona horien zaintzan? Adineko pertsona ahulak laguntzeko iturri bakarra senideen zaintza izango da? Gizarte langileak erakarri eta atxiki al ditzakegu? Hobeto ordaintzea al da kontua? Finantza publikoak arriskuan jarriko al dira? Nola oreka daitezke erantzukizun pribatua eta laguntza publikoa arretari dagokionez? Kostuak murriztu al ditzakegu epe luzeko zaintza-zerbitzuen eraginkortasuna hobetuz?...

*Informazio gehiago:*

[http://www.oecd.org/document/23/0,3746,en\\_2649\\_37407\\_47659479\\_1\\_1\\_1\\_37407,00&&en-USS\\_01DBC.html](http://www.oecd.org/document/23/0,3746,en_2649_37407_47659479_1_1_1_37407,00&&en-USS_01DBC.html)

<http://www.oecd.org/dataoecd/12/27/47902750.pdf>



### > Gazteriaren parte-hartzea gizartean

Eurobarometroaren dokumentuak Europako gazteek (15 eta 30 urte bitartean) kirol taldeetan, kultur elkarteetan eta gobernuz kanpoko elkarteetan, jarduera politikoetan eta boluntarioetan, nola beste herrialde batzuetako gazteekin batera egindako jardueretan duten parte-hartzea aztertzen du.

Inkestaren emaitzen arabera (2011ko urtarrila-otsaila, 1.000 pertsona 27 estatuetako bakoitzean), gazteen % 34ak aktiboki parte hartu du kirol taldeetan azken urtean, % 18ak aisia edo gazte elkarte batean, eta % 14ak kultur elkarteetan.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/public\\_opinion/flash/fl\\_319a\\_sum\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/public_opinion/flash/fl_319a_sum_en.pdf)

[http://ec.europa.eu/public\\_opinion/flash/fl\\_319a\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/public_opinion/flash/fl_319a_en.pdf)

### > 2010eko demografia txostena

Europako demografiaren inguruan Batzordeak egindako urteroko hirugarren txostenak, "Adinekoak, gero eta gehiago eta anitzagoak" azpiztitularra duenak, Batasuneko eta estatu kideetako joera demografikoak zein estatu desberdinen arteko biztanle-mugimenduak aztertzen ditu.

Eta gero eta anitzagoa eta zaharragoa den gizarte europarrari lotutako eta bertatik eratorritako aukerak eta beharrak planteatzen eta aztertzen ditu.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=738&langId=en&pubId=5936&type=2&furtherPubs=no>

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=502&langId=en>



## ADIERAZLEAK

### > Agenda digitala: Scoreboard

Europako Batzordeak Europako Agenda Digitalaren aurrerapenaren adierazleak argitaratu ditu martxan jarri eta urtebetera. Batzordeak islatzen duenez, oro har, gertatutako aurrerapenak esanguratsuak dira, bereziki Interneten erabilerari dagokionean (biztanleen % 65).

Hala ere, sektore batzuen kasuan emaitzak etsigarriak dira, bereziki banda zabaleko sare ultra azkar berrien hedapenari dagokionean. Hain zuzen ere, hori da Agenda Digitalaren helburu nagusietako bat. Hala ere, dauden kable eta kobre sareak hobetzeari dagokionez aurrerapen batzuk gertatu dira.

Adierazleak aurrerapen nabarmena adierazten du Interneten ohiko erabileran, lineako erosketetan eta administrazio elektronikoan; erdiko aurrerapenak izan dira erabilgarritasunari eta banda zabalaren onarpenari dagokionez; eta mugaz haraindiko merkataritza elektronikoan, enpresa txiki eta ertainek Interneten duten presentzian, ibiltaritzako tarifetan eta IKTei dagokienez I+Gan egindako inbertsio publikoan ez dira aurrerapen nahikoak gertatu.

Oro har, Agenda Digitaleko 101 ekimenak aplikatzeko orduan lortutako aurrerakuntza nahiko positiboa izan da: horietako % 10 inguru amaitu egin dira, % 80 martxan daude eta % 10ak atzerapenak dituzte.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/information\\_society/digital-agenda/scoreboard/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/information_society/digital-agenda/scoreboard/index_en.htm)

### > Europari lotutako adierazle ekonomikoak

Europar Batasuneko adierazle ekonomiko nagusien gida osatu du Eurostatek; halaber, adierazle horien eta erreferentziako aldizkarien eta horien on line hedapenaren laburpen txiki bat egin du.

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-30-10-689/EN/KS-30-10-689-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-30-10-689/EN/KS-30-10-689-EN.PDF)





### > Biztanleriaren etorkizuna 2010-2060

Eurostatek 2010 eta 2060 urteen artean biztanleen inguruko etorkizuna argitaratu du. 2060. urtean, 27 estatu kideetako biztanleria 517 milioira iritsiko dela aurreikusten du, 2010ean 501 milioi biztanle izango delarik.

80 urtetik gorako pertsonen kopurua nabarmen handitzea aurreikusten da; horrela, 2010ean % 4,6 izatetik 2060an % 12 izatera pasatuko lirateke. Ugalkortasun urriaren eta bizi-itxaropen luzeagoaren ondorioz gertatuko litzateke.

Adineko pertsonen mendekotasun ratioa handitu egingo litzateke berrogeita hamar urteotan, % 25,9tik % 52,6ra.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_PUBLIC/3-08062011-BP/EN/3-08062011-BP-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/3-08062011-BP/EN/3-08062011-BP-EN.PDF)